

## Oinarriak

### Aurkezpena eta helburuak

NoviaSalcedo Fundazioa, gazizarte eta lan munduan sartzeko prozesuan gazteei laguntza eskaini nahi dizkien, beraien maila ertaineko eta goi mailako ikasketak amaitu eta gero, eta etengabe aldatzen ari den munduari aurre egiteko beharrezkoak diren trebeziak eta balioak eman nahi dizkien erakundea da.

Badakigu zein zaugarri diren gazteak beraien etorkizunaren aurrean, eta Sari hau, gure lanaren zerbitzuan ematen den tresna da. Hau da, belaunaldi gazteei bidea errazteko tresna, aliatuak identifikatuz eta sinergiak eratuz.

Deialdi honen bitartez, Novia Salcedok honako hau bilatzen du:

- nazioarte mailan, gazteak lan munduan sartzeko prozesuan lan egiten duten pertsonak, enpresak, herri administrazioak eta erakundeak aintzatestea eta motibatzea;
- horien lorpenak zabalatzea, gizateriarentzako adibide gisa;
- gizarte orokorra sentibilizatzea, integrazio horren behararen aurrean, ongizatearen gizartean izango duen ondorioak direla eta;
- EAE nazioarteko sari handien panoraman kokatzea.

1.- Instituzioek, kultura-zentroek eta ikerketa-zentroek, unibertsitateek, enpresek eta bestelako erakundeek, bai eta Sariketako Batzorde Antolatzaileak gonbidaturiko pertsonak ere, hautagaien proposamen arrazoitua aurkezteko aukera izango dute.


Aurkeztutako hautagai guztiak preskriptore batek egingo ditu hautagai, eta ezingo dute beren burua hautagai gisa aurkeztu, ez eta ordezkatzeko dituzten erakundeak ere.

2.- Sariketako hiru kategoria izango ditu:

- Pertsonak
- Enpresak, eta
- Administrazio publikoak / instituzioak / GKEak

Eta honako arlo hauetan emango dira sariak:

- Ideiak eta ikerketak
- Proiektuak eta ekimenak
- Jardunbide egokiak
- Sentibilizazioa eta gizarte zabalkundea



3.- Hautagaitzak formalizatzeko, Novia Salcedo fundazioaren web gunean dagoen hautagaitzaren eskabide-inprimakia bete beharko da; edo, bestela, proposamen-inprimaki ofiziala bidali beharko da Fundaziora, behar bezala beteta eta hautagaiaren aparteko merezimenduak zehaztasunez azalduta.

Inprimakiak posta ziurtatu bidez edo posta elektronikoko bidez ([andrea@noviasalcedo.es](mailto:andrea@noviasalcedo.es) helbidera) bidal daitezke; edo, bestela, Fundazioaren helbide sozialean aurkez daitezke (Iparragirre kalea, 9, 1. - 48009 Bilbo – Espainia).

2010eko martxoaren 2a baino lehenagoko zigilu marka duten posta arruntez bidalitako hautagaitzak onartuko dira.

Inprimakietan erantsi ahalko dira, gainera, hautagaiari buruzko datu aipagarriak eta informazio osagarria emango dituzten dokumentu guztiak, bai eta hautagaiaren euskarri izango diren bestelako dokumentuak ere.

Behin aurrehautaketa egin duenean, Sariketako Batzorde Antolatzailea harremanetan jarriko da hautagaiekin, hurrengo faserako hitzordua ezartze aldera. Hurrengo fase horretan, aurkeztutako proposamenen gaineko ebaluazio sakonagoa egingo da.

4.- Behin hautagaitzak jaso eta onarpen-epea itxi denean (alegia, 2010eko martxoaren 2ko 14:00etan) hautagaien gaineko aurrehautaketa egingo du Batzorde Antolatzaileak, eta espediente aipagarrienak Epaimahaiari helaraziko dizkio. Ondoren, sariaren gaineko erabakia jakinaraziko du.

Aurrean azaldutako betekizunak betetzen ez dituzten hautagaiak ez dira onartuko. Nolanahi ere, aurkeztutako dokumentuak ez dira itzuliko, eta ez da haien gaineko korrespondentziarik mantenduko. Sarituek oniritzia emango diote web guneko sarien argitalpenari.

5.- Nazioarteko epaimahai independenteak egingo du hautagaien azterketa. Epaimahai hori ospe handia eta gazteenganako sentikortasun esanguratsua duten pertsonak osatuko dute, eta Sariketako Batzorde Antolatzaileak izendatuko ditu epaimahaikideak. Erabaki-eguna baino lehen jakinaraziko da zein izango diren kide horiek.

Epaimahaia urteko lehen hiruhilekoan bilduko da, eta egun horretan jakinaraziko du bere epaia. Saria banatzeko ekitaldia geroago ospatuko da, eta behar bezala jakinaraziko da.

6.- Epaimahaia Sariketako Batzorde Antolatzaileak izendatuko du, eta lehendakaria eta idazkaria (hitza eta botoa dituen) izango ditu. Lehenengo bileran, idazkariak (Novia Salcedo Fundazioak izendatuko duena, hitzarekin baina botorik gabe) epaimahaia eratutzat joko du, eta, jarraian, kide guztien artean lehendakaria aukeratuko da.

Lehendakariak izango du eztabaidak antolatzeko eta zuzentzeko ardura, bai eta, kasuan kasu, egingo diren bozketak antolatu eta zuzentzeko erantzukizuna ere. Halaber, idazkariaren ardura izango da araudi hau interpretatzea eta bileretako aktak egitea. Saria epaimahaikideen botoen gehiengoa lortzen duen hautagaiari emango zaio. Berdinketarik gertatuz gero, kalitatezko botoa erabiliko du lehendakariak.



7.- Saria ezingo da eman hil ostean, eta ezingo zaie eman Fundazioko kideei ere.

8.- Saria diploma eta eskultura baten kopia izango dira, eta eman gabe utzi ahalko da. Saria jasotzeko, saria irabazi duen entitatearen legezko ordezkariak edo saritutako pertsonak sariak emateko ekitaldi handian bertan izan beharko dute

9.- Sarituek, hala eskatzen baldin bazaie, sari-ematea dela eta antolatuko diren ekitaldietan parte hartu beharko dute.

10.- Hautagaiak aurkezteko oinarri hauek guztiak onartu beharko dira, bai eta Sariketako Epaimahaiak hartzen dituen erabakiak ere

## 1.KATEGORIA PERTSONAK

### Helburua

**Gazteak** eta, bereziki, gazteen **garapen osoa**, pertsonala eta lanbide-arlokoa beren bizitzako ardatz izan dituzten pertsonen **bizi-ibilbidea** aintzatetsiko da, alegia, proiektuak bultzatzen, gizartea sentikortzen, ekintzak ezartzen eta abarretan jardun duten eta funtsezko aktibo izan diren pertsonen ibilbidea (ez soilik gazte protagonistentzat; are gehiago, eta posible baldin bada, gizarte osoarentzat).

Besteak beste, honako hauek sarituko ditugu: **ibilbide pertsonalak, lan-ildoak, lanbide-karrerak eta, azken finean**, gazteak lanbideratzearen alde egin duten lanaren aintzatespena jasotzeko duinak diren **bizi-ibilbideak**

### Balorazio Irizpideak

#### SINESGARRITASUNA

1. Gazteak lanbideratze arloan gauzatzen duten beren eginkizuna betetzean zuzentasuna eta jarraitutasuna.
2. Arlo horretako curriculum eta ibilbidea.
3. Aurretik jasotako aintzatespenak.
4. Denboran luzatu diren emaitza arrakastatsuak.


#### GIZARTEAN DUEN ERAGINA

1. Erreproduzigarritasuna: bere kasuan, aplikazio praktikoa posible baterako erraztasuna.
2. Balio erantsia gizartearen osotasunerako
3. Tokiko ekonomian duen eragina.

#### GIZARTE BERRIKUNTZA

1. Berritasun eta jatortasun maila

#### BALIO PERTSONALAK



1. Zuzentasuna.
2. Konformagaitasuna.
3. Etika eta gizarte-erantzukizuna
4. Norbere burua gainditzeko gogoa
5. Arriskuak onartzea.
6. Beste kultura batzuetara irekitzea
7. Osotasunera irekita egotea
8. Pentsamolde apurtzailea
9. Gazteen garapenean parte hartzea

## 2.KATEGORIA ENPRESAK

### Helburua

Gazteekiko harremanetan gizarteari dagokionez arduratsuak eta bikainak diren enpresak sarituko dira. Halaber, ekintzak abian jarri dituzten enpresak, proiektuak aurrera eraman dituztenak, enpresa-kulturak aldatzeko lanean ari direnak... azken finean, etorkizunarekiko engaiamendu sendoa duten enpresak sarituko dira.

Besteak beste, honako hauek golardatuko ditugu: **lanbideratze-arloko ibilbideak, gazteak lanbideratzeari dagozkion ekimenak, enpresa-diseinuari buruzko proiektuak, sentikortze-ekintzak, hedapen-kanpainak, komunikazio-ekintzak (telebista, irratia, prentsa), gazteei lan-munduan sartzen laguntzeko programak, eta abar.**

Azken finean, hazten jarrai dezaten laguntza, sustapena, bulkada eta adorea behar duten eta denok ikasteko balia ditzakegun enpresa-jardunbide egoki **guztiak**.

### Balorazio Irizpideak

#### SINESGARRITASUNA

1. Bere eginkizuna betetzean zuzentasuna eta jarraitutasuna, gazteak lanbideratze arloko bikaintasunari dagokionez
2. Arlo honetan jardute garrantzitsuak egin izana.
3. Aurreko ibilbidea eta/edo aintzatespenak.

#### GIZARTE BERRIKUNTZA

1. Erreproduzigarritasuna: bere kasuan, aplikazio praktiko posible baterako erraztasuna
2. Balio erantsia gizarte orokorarentzat/tokikoarentzat
3. Berritasun eta originaltasun maila.
4. Gizarte eskari baten aurreko erantzun maila

#### EMAITZAK

1. Gazteak lan-munduan hartuak izatea
2. Ekintzak abian jartzea
3. Joera jarraitua edo gorakorra, zenbait urtez, gutxienez



4. Tokiko ekonomian eragina

#### **ERAKUNDE-KULTURA**

1. Integrazioa / Bizitza pertsonala eta lan-bizitza bateratzea / Balioak
2. Hartutako gazteei harrera egitea eta prestakuntza ematea
3. Aurrera eramandako integrazioaren kalitatea.
4. Pertsonen lanbide-garapenaren mailan parte hartzea
5. Gazteek proiektuan parte hartzeko aukerak

### **3.KATEGORIA                    INSTITUZIOAK                    /ADMINISTRAZIO PUBLIKOAK/GKE ak**

#### **Helburua**

Administrazio publikoek eta hirugarren sektoreko erakundeek (elkarteek, fundazioek, eta abarrek) gazteak lan-munduratzearen alde gauzatzen duten lana aintzatetsi eta bultzatuko da.

Beren lanaren xedetzat gazteak lan-munduratzeara duten edo izan duten instituzio publikoen eta hirugarren sektoreko erakundeen **lan-ildoak, ibilbideak, proiektuak, ekimenak, jardunbide egokiak, gauzatzeak, ikerketak eta abar** golaradatuko ditugu.

#### **Balorazio Irizpideak**

##### **SINESGARRITASUNA**

1. Bere eginkizuna betetzean zuzentasuna eta jarraitutasuna, gazteak lanbideratze arloko bikaintasunari dagokionez.
2. Arlo honetan jardute garrantzitsuak egin izana
3. Aurreko ibilbidea eta/edo aintzatespenak

##### **GIZARTE BERRIKUNTZA**


1. Erreproduzigarritasuna: bere kasuan, aplikazio praktiko posible baterako erraztasuna.
2. Balio erantsia gizarte orokorarentzat/tokikoarentzat
3. Berritasun eta originaltasun maila.
4. Gizarte eskari baten aurreko erantzun maila.

##### **EMAITZAK**

1. Gazteak lan-munduan hartuak izatea
2. Ekintzak abian jartzea
3. Joera jarraitua edo gorakorra, zenbait urtez, gutxienez
4. Tokiko ekonomian eragina

##### **ERAKUNDE-KULTURA**

1. Integrazioa / Bizitza pertsonala eta lan-bizitza bateratzea / Balioak
2. Hartutako gazteei harrera egitea eta prestakuntza ematea.
3. Aurrera eramandako integrazioaren kalitatea.
4. Pertsonen lanbide-garapenaren mailan parte hartzea



## 5. Gazteek proiektuan parte hartzeko aukerak

### Laguntza teknikoa

Novia Salcedo Sariaren deialdiari buruzko edozein zalantza edo bestelakoa argitzeko, Mónica Muñozekin jar zaitezke harremanetan, [monica@noviasalcedo.es](mailto:monica@noviasalcedo.es) helbide elektronikoaren edo +34 94 425 59 59 telefono zenbakiaren bitartez.

### Datuen Babeserako legea

**Pribatutasun politika.** **Datu horiek guztiak erabateko konfidentziasunez lantzen dira**, eta hirugarrenek ezin izango dituzte aukeratu, eskatu izan diren helburuak ez direnetarako. Datuen Babeserako 15/99 Legeak aitortzen dituen datuetara sartzeko, haiek baliogabetzeko, zuzentzeko edo haien kontra azaltzeko eskubidea erabiltzera zuzenduriko edozein kontsulta edo iradokizun pertsonal honako helbide honetara bidal dezakezu: [nsfundazioa@noviasalcedo.es](mailto:nsfundazioa@noviasalcedo.es)